

Félix San Martín dala ta...

EUN urteko bat dogu Eibar'en, eta jendia zerbait kezkatuta dabil Felix San Martín'ek zer bizi-modu egin ete daben ainbeste urte artzeko.

Ba, jakin deizuen, bere bizitza beste edozein baserriarren modukua izan dala, zer kontaturik ez daben bizi-modu beargin eta zuzena; kalekoa baño zuzenagura danik zer esanik be ez. Bere gazte denporan, karli-tadako gerratian ibilli bearra izan eban, berak diñuanez fueruak gorde bearra zala-ta; baña ortik kanpora bere biziak ez dauka zer kontatu aundirik basarriko lan neketsuetatik kanpora. Ba, irurogeta urtiak arte basarriko biarreri oso lotua bizi izan zan gure Felix, lantzian bein, bere ase aldiak Elgoibar, Zumarraga eta inguruetako ferietan ta inoiz kalia ba-zan arari topeka, proba, aizkolari, bertsolari, ta abar, Eguren baserriatik jexita, an azalduko zan bere zaletasuneko jai-aldietan biotza eztitzera.

Baiña nola artu leikez ainbeste urte? Arri-tzekua, bai; baiña bear bada ez lengo zar askok egiten eben bizi-modu osasungarriari begiratuoko ba-genzkio: txoriekin ogeratu ta olluekin jaiki. Ori izan da saoi bateko gizonen bizi-modua, batez-be baserrietan. Oin-diok gure zarrengandik entzuten dogu:

«Gabian parrandan da
goizian logura;
ezara oingo gaztiak
osasunan gura».

Berriz, irurogei-t'amabi urtera arte ez eban erretzen. Orduantxe inguruan azi ei zan patxar koparen bat edo beste edaten be. Bere-tako, bizioak zartzaroko gauzak izan dira, ala ta guzti be, inoiz ez dau ikusi mozkortuta oindiñokoan. Ta gazetetan zuzen asitako arbolia nekez okertutzen danez, ori izan da gure Felix eun urteraño eruan dabena. Gaurko gaztiak, beragandik, ba-dauke zer ikasi.

Eibar'en lenengo eun urtekoa azaltzen dala-ta, San Andres Eibar'ko Patroiaren egunean, erri-agintari ta eleiz-gizonak jai eder bat ger-tatu zezkuen, eta San Martín'tarrok eskeitu bearrean gara. Lenengotik, goizeko amaika-t'ardiak inguruan-udaletxean (ayuntamentuan) egin zetzen arrera on bat, andik zuzenean Eleizan Meza emon eben Aita Santuaren be-deinkazioa arturik. Gauzatxo batek arritu giñuzen, sermoia erderaz egiteak; ba gure atxi-txak ez daki erderarik. Pensagarria, baña pensatzen dogu konturatu barik egingo ebela; beintzat ba-dakigu asmo txarrik egongo ez zana. Gero Azitain'en izan ziran izatekuak.

Obeto esanda—agura zarra nere aitxitxaren anaia dot—gizajoa mareatu bear eben; danak ziran zerbait galdetu bearrean. Esan netzan bere alabarik gaztenari:

«Luisa, gaur urte-pare bateko bizia kendu bear detze aitxitxari».

Eta berak erantzun eztan:

—Bai zera, au ointxe dabil pozik; gaurko jai onekin, urte bi geitu bai oni.

(Foto Ojanguren).



Eta egia esan, ori zirudian bere begi dir-dirakorrak.

Aizkora-joko ederra ikusi genduan. «Aizkua» baserriko semea napar baten kontra. Eibartarrak irabazi eban, baña joku estuakin. Ondoren, bazkaria. Egaña abadiak naikua burukomin izan eban danentzako lekua aurkitzen. Guztiz eun da berrogeitamaretik gora giñan, baña tira, azkenerako ondo konpondu giñan.

Bazkal-ondoan, naikua erregalu ezkeindu zetzen Felix'eri: dirutik asi ta toka-diskoseraño. Gero, Don Pedro Zelaia'k emon zezkuan ustegabekoa. ¿Noiztik-nora Don Pedro bertsolari. **ORTZIAN IZAR EDERRA**, Lapurdi'ko erri-kantaren doñu zoragarriz loraz betetako bertso batzuek ezkeindu zetzazen eun urtekoari. Ondoren, **BASARRI** bertsolari jatorrak artu eban aria, eta eten barik jardungo eban kantuan jentearen txalo otsak ainbeste bidar ixildu-erain ez-pazetzan.

«Basarri»ren modukorik ez-da sekula sortu Euskalerrian!—entzuten genduan askoren aotik.

Palacios alkate jaunak berba batzuek egin zituan, Loiola, Arrate-balleko alkate ordekarriari bere izenean zerbait esateko eskatuaz. Gazte ura jaiki zan berak berbetan ez ekiala esnaz. Ez dakigu, baña orraitik jakin ba-eban Demostenes aspaldi bazartua izango zan: ba gutxitan antzun ditugu ainbeste gauza ain berba gutxitan.

Felix'en begi argietatik barruko poza garbi-asko agiri zan. Jan da edan ondo egin ondoren, kopa ta patxar pizkat artu zituan, eta na-ai-asko erre eban purua be.

Geroago jentia «Basarri»ri bertso ezke asi zan eta ondo konsolatu zituan baztarrok gure bertsolari pamatuak. Txistulariak'pe an ziran euskal-musikak joaz.

Azkenian, Felix'ek daneri eskerrak emonaz amaitu zan San Martín'tarori inoiz be astuko ez jakun jai zoragarria; ze, bera zala-ta, aukeran etorri jakun amaika erbesteko senide ez-ezagunekin artu-emonetan jartzeko.

JUAN SAN MARTIN.

GOIZTAR-MITXELETA

Martiko aixe epel batek
atara ninduan;
mitxeleta polita
Otolan ortuan.

Damaskiño-gintzako
urre gorrixa
bezin ederra nere
eguen orixa.

Eta zeru urdiñian,
baneban zein pozlu,
nebalakuan Uda
—barrixa aurreratu.

Zoriontzu nintzan ba
euzki eta loren,
Negu luzeko edurrak
ta otzen ondoren.

Baño Urteko erlojuan
goiz zan, ay!, goizegi;
ta, a! beingo aixe epela
engañu bat neri.

Gorri ba ondik lurra,
zan orbel t'ez lora;
biaramonetik berriz
egualdi gogorra.

T'agur nere soñeko,
t'agur nere urriak;
agur nituan ames
maitetsugarriak.

Beriala txingorrek,
ninduen apurtu,
eta lur loixan kontra
trapu zar biurtu.

Goizegi, ai!, aurkitzia
norberan ederra,
mundu gaiztua dala
sarritan okerra!

Gizon ameslarixok
bardiñak gabiz gu;
batera goizegi ta
bestera berandu.

Goiz, esperantza onen
aindu ederrentzat;
lelu, len Mundua zan
gazte zintzuentzat.

ETXEBERRIA.